



# ITSASARGIA

eztabaida herritarra



GURE  
ESKU

## 10 urte baino ez

300 gailur egitetik gatoz. Ez da marka txarra gero! Baina dakizun bezala, gure gailurra ez dago Pirinioetan, gure gailurra zortzimilakoa da, eta era batera ala bestera, igoera horretarako prestatzen ibili izan gara beti; zeresanik ez, azken hamarkadan.

2013ko ekainaren 8an jaio zen Gure Esku, Ficoban (Irun). Urtebetera, Durango eta Iruñea batuko zituen giza-kate erraldoia egin genuen: “herri bat gara, erabakitzeko eskubidea dugu eta herritarron garaia da!” Eskuz-esku 123 kilometro lotuz, elkarrekin gauza erraldoiak egiteko gai ginela ikusi genuen, eta gure etorkizuna libre erabakitzeko bidean protagonista izango garela sinesten hasi ginen. Orduetik hona, josi eta josi ibili izan gara, eta josi ditugu oihal-kate erraldoiak, erabakitzeko milaka arrazoi baita bigarren giza-kate bat ere. Eta aldarrikatzeko baino, erabakitzeko jaio ginenez, 208 herri-galdeketa antolatu ditugu.

2019an, jauzi bat egiteko prest ginen: erreferendum bidez erabakitzeko prozesu bati ekitea. Aurrez-aurre genuena herri erronka bat zela ulertuta, burujabetzaren aldeko eragileen elkargune bat sortu genuen (Hamaika Gara). Manifestu bat adostu eta herritarron borondate eta konpromisoak sinadura bidez bildu genituen; eta horrekin batera, Euskal Herriko erreferentziazko 100 lagunek Arantzazuko Adierazpena (2021) izenpetzea sustatu genuen.

2022ko ekainean aurkeztu ditugu Hamaika Gara manifestua eta eskaera eta Arantzazuko Adierazpena Eusko Legebiltzarrean. “Gure etorkizun politikoaren inguruko eztabaida sustatu, eta herritarron parte hartze eraginkorra bermatuz, erreferendumak egiteko ahalmen osoa beren gain hartu, arautu eta garatzeko” interpelatu dugu Legebiltzarra (Hamaika Gara); eta ordezkarien egitekoa parlamentu horretara mugatzen ez delakoan, euskal herritarrok “gure erakunde politikoak, gure estatus politikoa eta autogobernu maila, eta gure lurraldeen arteko harremanak zuzenean, mugarik gabe eta libre” erabakitzeko eskubidea dugula aintzat hartuz, “prozesu bat lantzeko, adosteko eta sustatzeko beharra” aldarrikatu dugu (Arantzazuko Adierazpena).

Burujabetzarako bidean dauden herriein elkartasunetik elkarlanerako jauzia ere egin dugu. 2022ko uztailean, Pirinioetako Bidea alderik alde argiztatu dugu. Kataluniako eta Euskal Herriko gizarte eragileok eskuz-esku aritu gara mendikate osoko 300 gailur argiztatu dituen mobilizazioa antolatzen, eta galegoekin harremana estutzeko bide ere izan da. Ezbairik gabe, elkarlan dinamika berri baten abiapuntua baino ez da.

Azken hamarkada garrantzitsua izan da gure herriaren historian, eta esan dezakegu Gure Esku, eta batik bat, herriz-herri dinamika gorpuztu dugun herritarrok, hainbat eraldaketaren motore izan garela. Urte luzetan gatazka gai izan dena erronka demokratiko bilakatzea bultzatu dugu,

erabakitzea konponbiderako giltza dela gizarteratuz; erabakitzeko bidea elite politikoen kontua ez dela ulertuta, herritarrok ahaldundu egin gara, eta gure esku dagoela barneratzen hasi gara (burujabetza prozesua behetik gorakoa izango da, ala ez da izango); eta estilo bat ere zabaldu dugu, inori betorik jarri gabe, solaserako, eztabaidarako eta adostasunetara iristeko prest dagoena, eta baikortasuna, ilusioa eta bizipoza transmititzen dituen.

10 urte baino ez. Bidea eginda, gailurretik gertuago gaude.

## **0. Izan zirelako gara**

Subiranotasuna aldarrikatzen ez gara lehenak Euskal Herrian, ezta hurrik ere. Garai historiko ezberdinetan, forma eta protagonista ezberdinak izan ditu ahalik eta burujabeen izateko ahaleginak. Aldi berean, ugari izan dira historian autogobernatzeko ahalegin horri kanpotik ezarritako oztopoak, baita herri nortasunaren zutabeak eraisteko edo ahultzeko saiakerak.

Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen aldarrikapena eta autogobernuaren garapena eta defentsa ardatz izan dira azken hamarkadetako herrigintzan, eragile ezberdinen eskutik. Gure Eskuk bere ekarpena egin du azken hamar urteotan. Batzuen eta besteen ekimenak gure gizartean sakon errotatutako borondate argi baten isla dira. Herritarrok gure esku nahi dugu etorkizuna, guk erabaki nahi dugu gure etorkizun politikoa. Bertan erabaki nahi dugu. Herri bat gara, erabakitzeko eskubidea daukagu, herritarron garaia da. Herritarrok hitza hartzeko garaia.

Erabakitzeko eskubidea herritarron borondate askean oinarritzen da. Herritarron borondateak eraikitzen du garai bakoitzean erabakitzeko eskubidearen subjektua. Egun bizi dugun garaian, estatus politikoa erabakitzeari dagokionez, lurralde ezberdinetan era ezberdinetan islatzen da herri borondatea. Gure Eskuk aitortzen du Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herritarrek, Nafarroa Garaiko herritarrek eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrek euren estatus politikoa erabakitzeko eskubidea. Lurralde eremu bakoitzean burujabeago izateko bidean egindako urratsak aintzat hartzen ditu. Aldi berean, herri gisa erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen du, eta berau ahalbidetuko duen herri borondatea osatzearen alde lan egiteko konpromisoa hartzen du. Izan ere, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herritarrei, Nafarroa Garaikoei zein Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoei aitortzen zaien etorkizuna erabakitzeko eskubideak balio du bai estatuekiko harremanak finkatzeko bai gainerako lurraldeekiko harremanak zehazteko.



## 1. Subiranotasuna erdigunean

“Gure Esku eragile subiranista da. Eztabaida publikoan ahots propioa izango du, eta nortasun eta diskurtso subiranista berri bat eraikiko du”

Gure Eskuren ortzi-muga edo azken helburua euskal herritarrok gure etorkizun politikoa libre erabakitzea da. Horretarako, erabakitze eskubidea dugula aldarrikatu izan dugu, herri galdeketen bidez, eskubidea praktikara eraman izan dugu, eta eskubidea lege bilakatzea eta egikaritzeko tresnak (alegia, erreferendumak) eskuratzea eskatu izan dugu. Urte luzetan gatazka gai izan dena erronka demokratiko bilakatzea bultzatu dugu, erabakitzea konponbiderako giltza dela gizarteratuz. Gure Eskuren ekarpenik handienetakoa izan da erakustea elkarrekin erabakitzea ariketa osasuntsua eta ahalduz kolektiborako bitarteko garrantzitsua dela.

Beraz, esan dezakegu erabakitze eskubidea dela Gure Eskuren balio oinarrizkoena; eta aurrerantzean ere, hala izango da. Gure Esku oinarrizko zoru komun konpartitua eraikitze heldulekua izan daiteke eta, horretarako, ezberdinen arteko konplizitateak josten jarraituko dugu, gehiengo horiek irudikatu eta gauzatzeko.

Erabakitze eskubidea aldarrikatzen dugu eta berau gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoak eskatzen ditugu eskura dugun eskumen-esparrua ez delako nahikoa egungo herri erronkei aurre egiteko. Euskal herritarrok ez dugu indarrean dagoen marko juridiko-politiko berresteko edo aldatzeko aukerarik izan. Guk ez dugu aukeratu hiru eremu administratibotan eta bi estatutan banatuta bizitzea. Gure erakunde politikoak, gure estatus politikoa eta auto-gobernu maila, eta gure lurraldeen arteko harremanak zuzenean, mugarik gabe eta libre erabakitze eskubidea dugu.

Burujabetza osoa nahi dugu gure bizitzaren jabe izateko, gure komunitatean eragiten duten auziei buruz erabakitze, eta mundu garaikide honetan herri gisa aurrera egiteko. Honenbestez, Gure Eskuk eragile subiranista gisa definitzen du bere burua, eta Euskal Herriaren subiranotasuna erdigunean kokatuko du. Eztabaida publikoan ahots propioa izango du, eta nortasun eta diskurtso subiranista berri bat eraikitze ahalegina egingo du. Hori dela eta, Euskal Herri zabalean dauden sentsibilitate ezberdinak barne biltzen dituen narratiba sendoa bat elikatzen saiatuko da Gure Esku; martxan dauden hainbat prozesu aitortu eta aintzat hartuko dituena, eta logika orokorrago baten baitan kokatuko dituena Euskal Herri berri bat eraikitze asmoz.



## 2. Subiranotasuna eta burujabetzak

“Burujabetzen aldeko borrokekin bat eginda, Gure Eskuk subiranotasun politikotik egingo dio ekarpena gizarteari”

Euskal Herrian abian diren eraldaketa prozesu askok burujabetza dute oinarri. Gorputzetatik hasi eta elikadura, energia, ekoizpen edo kontsumoraino; hezkuntza, hizkuntza, lan esparru eta pentsio sistematik segi eta generoraino. Burujabetza jabekuntza prozesu konplexua da, ahalduntze indibidual eta kolektiboa behar ditu, eta transbertsalitatea eta interseksionalitatea aintzat hartu behar dira prozesua bere osotasunean ulertzeko. Poliedro baten gisa irudika ditzakegu burujabetzak: elkar eragiten eta elikatzen dute.

Gure Eskuk eraiki beharreko proiektu eta diskurtso subiranista berriek burujabetzak (pluralean) aintzat hartu behar dituzte. Burujabetza gabeziak alor ezberdinetan eragiten dituen injustiziak salatuko ditu, eta burujabetza formala edo subiranotasunarekin lotu, burujabetza formalik ezean, burujabetza materialak lortzeko aukera mugatuta baitago.

Izan ere, energia tokian-toki sortzeko egitasmoak behar ditugu, baina merkatu energetikoan esku-hartzeko eskumena ere bai; euskararen erabilera sustatzeko ekimen eta kanpainak behar ditugu, baina hizkuntza politikak legezko oztoporik gabe garatzeko gaitasuna ere bai.

Krisien aurrean, inork pentsa lezake subiranotasunak ez duela urgentziarik, orain ez dela tokatzen. Begirada altxatuz gero, ordea, begi-bistakoa zaigu unean-uneko urgentziek zerikusi handia dutela egungo eta etorkizuneko erronkekin. Subiranotasuna behar dugu munduan lehiakor izateko. Erabakiak hemen eta herritarrok hartuz gero, bizitza duinagoak izatea posible izan daiteke. Daukagun errealitatea onartu beharra dugu halabeharrez, eta erritmo ezberdinak onartu. Burujabetza prozesuek elkar elikatu eta eragiten dute; ondorioz, bidean aurkitzen ditugun aukera guztiak probestuko dira. Izan ere, errealitate instituzionalak errealitate sozialen ondorio dira, beraz, saia gaitezen errealitate sozialak burujabetzaren alde jartzen.

Burujabetza artikulaziorako eremu estrategikoa da eta Gure Eskuk sare horretan paper garrantzitsua joka dezake zubigile moduan. Orain arte bezala, burujabetzaren aldeko eragileen arteko elkarlana sustatuko dugu, eta burujabetzen aldeko borrokekin bat egingo dugu. Edonola ere, eragile bakoitzak bere tokia eta ahotsa behar du izan, eta guk ere: Gure Eskuk subiranotasun politikotik egingo dio ekarpena gizarteari. Beste era batera esanda, Gure Esku burujabetza materialaren eta politikoaren elkargunea izan dadin lan egingo dugu, argi izanik Euskal Herriaren baitan dauden estatus politiko ezberdinen aldaketan daukagula gure erronka.



### 3. Euskal Herria ardatz

“Gure Esku nazio mailan lan egingo duen eragilea da, eta Euskal Herria du ardatz. Erritmo ezberdinetako estrategiei dimentsio orokor bat emango die”

Gure Esku nazio mailan lan egingo duen eragilea da, eta Euskal Herria du ardatz. Erabakitze eskubidea euskal lurralde osoan gauzatzeko baliagarriak izango diren proposamenak garatzeko ahalegina egingo du, eta era berean, proposamenak lurralde bakoitzeko berezitasunak aintzat hartuz eskainiko ditu. Alegia, erritmo ezberdinetako estrategiei dimentsio orokor bat emango die.

Badira, gaur gaurkoz, euskal lurraldeetan burujabetza politikoaren alorrean lan egiten duten beste gizarte eragile batzuk. Eragile horiekin elkarlanean eta haien egitasmoak aintzat hartuz jokatu du Gure Eskuk.

Unean-une erabakiko du nolako hartu-emana izango duen eragile bakoitzarekin, betiere burujabetzaren eta erabakitze eskubidearen aldeko dinamiko indartzea eta ahalik eta eraginkorrena izatea lehenetsiz.

Era berean, euskal lurraldeen eta erakundeen arteko harremanak estutzeko, estatu egiturak garatzeko, nazio ikuspegia indartzeko eta herri gogoia hauspotzeko bidean sor litezkeen egitasmoak babestu eta sustatuko ditu.



### 4. Herri akordio zabalaren alde

“Gure Eskuk herritar, eragile, alderdi eta erakundeak aintzat hartuko dituzten herri akordio zabalak josteko lan egingo du”

Euskal herritarren gehiengo zabal batek bere etorkizuna libre erabaki nahi du, eta hauetako asko behin eta berriz mobilizatu da, gainera, helburu horren alde. Erabakitze eskubidearen aldeko herritarren arteko adostasun zabal hori da Gure Eskuren iparrorratza. Eta gizartean ados gune dena alderdi eta erakundeetan gauzatu dadin lan egingo du. Exijentea izango da alderdi politikoekin, dagokien moduan, herritarren borondatea bete dezaten.

Guk uste dugu gizarte eragile eta herritarren hitza aintzat hartu gabe ez dagoela herri akordioez hitz egiterik. Horregatik, gobernantza demokratikoa aldarrikatuko dugu, eta herritar, eragile, alderdi eta erakundeak aintzat hartuko dituzten herri akordio zabalak josteko, bultzatzeko eta gauzatzeko lan egingo dugu: aukerak sortu eta sor litezkeenak baliatzeko prest egongo gara.

Konplizitateak josteko akuilu lana egingo dugu, eta besterik ezean, garatzea zaila izango liratekeen adostasun batzuk eraikitze helduleku izateko ahalegina egingo dugu, gizartean errealitate

berriak sortuz. Hori esanda, herri dinamika bezala, jarrera aktibo eta proaktiboa izango dugu, eta gainerako aktoreen jarrera bat ala beste izan, ez dugu utziko inork Gure Eskuren jarduera baldintzatzerik; herritarrok beti aurrera egingo dugu.



## 5. Munduko subiranistekin elkarlanean

“Gure Eskuk burujabetzarako bidean dauden herriekin elkartasunetik elkarlanera jauzi egiteko apustua indartu egingo du”

Itsaso subiranista bakarra da munduan; itsasaldiak gora zein behera egin, gure kostaldean ere eragiten du. Arreta bereziz begiratzen ari gara egun Irlanda, Eskozia, Katalunia, Galizia, Flandria eta Korsikako itsasaldiei, zein aurrerago sor daitezkeenei. Oztopo guztien gainetik, burujabe izateko haien borondatea argia da.

Badakigu olatu berriak sortuko direla, baina ezin dugu horien zain geratu: hurrengo olatuak hartu nahi baditugu, igerian harrapatu beharko gaituzte. Ezin dugu pentsatu beste herri batzuetan aurrera egiteak gurean ere berez aurrerapausoak ekarriko dituenik. Ezinbestekoa da herri horien esperientzietatik egin beharrekoak eta egin behar ez direnak ikastea, eta haiekin harremanak estutzea, elkar elikatuz, eta elkarlanean aritzeko aukerak sortuz. Gure Eskuk burujabetzarako bidean dauden herriekin elkartasunetik elkarlanera jauzi egiteko apustua indartu egingo du. Elkarlan horrek lurralde gatazkei elkarrekin ekiteko balioko du, estatuen eta Europaren aurrean ekintza eta eraldaketa politiko bateratuak eragiteko. Alde batetik, mobilizazio agendak bateratu eta antolatuz (Europa eta munduaren aurrean bakarrik ez gaudela erakusteko), eta, bestetik, eragile eta ordezkari politikoengan eraginez (Caucusa bultzatu...).



## 6. Nazioarteko aitortza baterantz

“Nazioartean erreferendumak egiteko joko-zelaia arautzeko bidean egin litezkeen ahaleginak babestu eta sustatuko ditugu”

Autodeterminazio eskubideari buruzko auzia nazioarteko komunitatean ere ebazten da. Gaur gaurkoz, Europako Batasunak, adibidez, estatuen barne arazotzat jotzen du, eta ez du auzi honen konponbide demokratikoan inplikatzeko apusturik egin. Are gehiago, beste aldera ere begiratu izan du. Beste herri batzuekin elkarlanean, jarrera hori aldarazteko lan egitea dagokigu, betiere, gautik egunera gertatuko ez dela jakinda.

EBk berandu baino lehen onartu beharko du komenigarria ez ezik, ezinbestekoa ere baduela gerrara daraman real politik-aren logika haustea. Gaur egun ez dago barne gatazkez hitz egiterik; Ukrainako gerran agerikoa izaten ari den bezala, gatazken ondorioek berehala zeharkatzen baitituzte estatuen mugak. EBk ulertu beharko du, gainera, erabakitzea ez dela gatazka iturri;

erabakia ukatzea, aldiz, bai.

Europa mailan subiranotasunaren lurralde gatazkei konponbide demokratikoa emateko tresnak behar ditugu. Eusko Ikaskuntzak eta Institut d'Estudis Catalans-ek sustatutako jardunbide egokien kodea prestatzeko oinarriak abiapuntu interesgarria izan litezke, baita Europako Argitasun Lege bat sortzea ere. Nazioartean erreferendumak egiteko joko-zelaia arautzeko bidean egin litezkeen ahaleginak babestu eta sustatuko ditugu. Eta Europa mailan eman daitezkeen neurriak Euskal Herrian ezagutzera emango ditugu.



## 7. Gizarte aktibo eta ahaldundua

“Herritarron aktibazioa da garapen kolektiborako bermea”

2013an, “herritarron garaia” dela esaten hasi ginen, eta ia 10 urteren ondoren, konbentzimendu berarekin berresten dugu ideia hori. Herritarron aktibazio eta konpromiso iraunkorra da garapen kolektiborako bermea. Gure Eskuren ibilbidean ikasi dugu elkarrekin gauza erraldoiak egiteko gai garela, eta gure etorkizuna libre erabakitzeko bidean protagonista garela. Argi ikusi dugu herritarrok izan behar dugula burujabetza prozesuaren motore.

Horretarako, ezinbestekoa da Gure Eskuk ildo mobilizatzailer eta ahalduntzailer anbiziotsu bati eustea. Orain arte bezala, ekintza berritzaile eta jendetsuak sustatu behar ditu, betiko estiloari leial: inori betorik jarri gabe, solaserako, eztabaidarako eta adostasunetara iristeko prest egonez, eta baikortasuna, ilusioa eta bizipoza transmitituz: “Jende zoriontsua, herri libre batean”, aniztasunari erreparatuz eta gaurko erronkei zoru komuna jarritz.

Gure ekimenek nortasun propioa dute, baina gure egiteko forma eraldatu eta askoren etxe bilakatu behar dugu, euskal nortasun, iruditeria eta Euskal Herri berri horren irudikapenean lagunduko digun Gure Esku berri bat eraikiz. Kanean eta komunikabideetan egon behar dugu etengabe eta masa kritiko indartsu bat osatu burujabetzaren eta erabakitzeko eskubidearen inguruan. Ahalik eta jende gehien ilusioz eta formatuta egon dadin lan egin, prest egoteko momentu batean pauso bat emateko, prozesua luzea baita. Horretarako, formakuntza eta ahalduntze ildoak indartzea ezinbestekoa dugu; hasteko, Itsasargia proposamen politikoaren inguruko pedagogia herriz herri tailer formatuan egingo duen barne prestakuntza martxan jarritz, gure kidegoaren artean ahalduntze politikoa eman eta komunikazioan aurrerapausoak ematea ahalbideratuko duena.

Ekimen nazionalak ikusgarri eta masiboak egiten jarraituko dugu ilusioa piztu eta



komunikabideetan mantentzeko, baina herrietako dinamika elikatzeko, urtero data zehatz baten buelta egingo den ekimen bat zehaztea eta eskualdeka antolatuko den eta urtearen lanketari lotuta egingo den ekimen lokala egitea proposatzen dugu, errealitate ezberdinei so egingo diena.

Azkenik, barne mailan erreferentzialtasuna eta komunikazio berriak landuko duten irizpide bilduma eta honen azalpen mintegia sortuko dugu.



## 8. Tokian-tokiko antolaketa

“Orain arte ezagutu izan dugun egituraketatik sare izaera handiagoa izango duen antolaketa eredu baterantz joko dugu”

Militantzia ereduari buruzko eztabaida ez da berria. Azken urteotan, herri mugimenduok zailtasun handiak izaten ari gara orain arteko ereduari eusteko. Albert Einsteinek esana da erokeria dela behin eta berriz gauza bera egin eta emaitza ezberdinak espero izatea. Beraz, orain arte ezagutu izan dugun ereduarekin tematu baino, pixkanaka bestelako eredu berrietarantz jotzeko apustua egingo dugu, eredu hori zehazki zein izango den oraindik ez dakigula onartuta. Askotan esan ohi dugun bezala, bidea ibiliz egiten da.

Orain arte ezagutu izan dugun egituraketatik sare izaera handiagoa izango duen antolaketa eredu baterantz joko dugu. Zabaltasuna erakutsi behar dugu. Mugimendua askoren gune bilakatu, berriro aniztu. Gure etorkizuna libre erabaki nahi dugunok gehiengo zabal bat osatzen dugu, eta komunitate zabal hori saretzea (bazkidetzea) eta operatibizatzea izango da gure apustua. Saretzea garrantzitsua da baina ezin gara herriko taldeez ahaztu. Hauek izango dira saretze horren ardatza. "Garra dagoen bitartean sua piztekoa aukera dago." Horrela, tokian-toki konpromiso handia duten kideen sare txiki bat antolatuko dugu, eta kide horiek arduratuko dira Gure Eskuren sare zabala behar bezala informatuta mantentzeaz eta ekimen jakinei begira aktibatzeaz.

Elkarlanean aritzea ezinbestekoa dugu; horretarako definitu beharra dugu zein den Gure Eskuko papera herrietan eta zelako harremana egongo den herri elkarteekin. Herrietan diskurtsoa lantzearen beharra dago herrietan praktikara eramanez ahal izateko eta kidego osoa Gure Eskuko erreferente ahaldundu sentiarazteko.

Komunikazioan apustua egin behar da eta ideia eta mezu sendoak findu, herrietan diskurtsoa landuz, ardurak garai berriei lotutako konpromisoen neurrikoak izan behar dira, markoen berdefiniziora jo behar dugu (bizkarrezurren helburuak definitu, erabakiguneei garrantzia eman, erabakigune eta informazio markoak ondo bereizi..). Herrietako komunikabideetan presentzia landu eta bermatu behar dugu, gehien ikusten diren komunikabideak baitira. Bozeramailtza partekatua eredu da gurea eta eredu horri eutsiko diogu. Egoitza fisikoek erreferentzialtasuna eta elkargunea izateko aukera emango liokete Gure Eskuri, herri zein hirien

gaitasunaren arabera horrelako espazioak eraikitzea sustatuko dugu

Herrietan herri arduraduna, komunikazio ardura eta sare sozialak astinduko dituzten pertsonak izango dira gutxieneko egitura. Markoei dagokionean, ezinbestekoa da talde motorean herri arduradunak egotea. Hauen egin beharra eskualde, lurralde eta nazio markoetan parte hartzea eta informazioaren transmisioa egitea izango delarik.



## 9. Zuzendaritza Kontseilua eta Idazkaritza

“Salbuespenik ezean, hauteskundeak bi urtean behin egitea eta Zuzendaritza Kontseiluko kideen erdia berritzea hobetsiko da”

Bazkideon Batzar Nagusiak izendatuko ditu Zuzendaritza Kontseiluko kideak. Gehienez 20 kide hautatuko dira, eta hautagaiak izendatzeko orduan, generoaren eta Euskal Herriaren lurraldetasunaren irizpideak bermatzeko, lurralde guztiak ordezkatzuta egotea bilatuko da. Horien artean elkarteko presidentea, idazkaria eta diruzaina egongo direlarik. Izendatutako ardurak lau urterako izango dira, Batzar Nagusiak, Gure Eskuren estatutuak jarraiki, berariaz baliogabetu ezean. Lau urteren buruan, karguak berretsi egin beharko dira. Salbuespenik ezean, hauteskundeak bi urtean behin egitea eta Kontseiluko kideen erdia berritzea hobetsiko da. Kide berriak hautatzeko prozedura Zuzendaritza Berritzeko Barne Araudian zehaztutakoa izango da.

Idazkaritza arduratuko da dinamikaren eguneroko kudeaketa orokorraz, Zuzendaritza Kontseiluaren esanetara. Ondorengo arduradunek osatuko dute: Diruzaina, Komunikazio arduraduna, IKT arduraduna eta Herrialdeko arduradunak. Baliabideen arabera zehaztuko dira ardura hauen banaketa langileen artean. Nazioarteko ardura sortzea beharrezkoa jotzen dugu.



## 10. Egitura juridikoa

“Bazkideon Batzar Nagusia izango da elkartearen organo gorena, eta bazkideok soilik izango dugu botoa emateko eskubidea”

Euskal Herrirako elkarte nagusia Gure Esku Dago GED-EH Kultura Elkarteak izango da. Horrez gain, beste egitura juridiko instrumentalak (proiektu jakinen kudeaketarako lankidetzak egiturak, elkarteak, fundazioak,...) sortu ahal izango ditugu administrazioarekiko eta beste elkarteekiko harremanetan eraginkor izate aldera.

Bazkideon Batzar Nagusia izango da elkartearen organo gorena, eta bazkideok soilik izango dugu botoa emateko eskubidea. Urtean behin bilduko da, gutxienez, urteko azken hiruhilekoan, eta bertan onartuko dira ikasturteko plangintza, kontu ekonomikoak eta bazkide berriak. Bazkideok dinamikaren norabidea erabakiko dugu, eta erabaki horiekin lotutako eskubide eta betebeharrak

guztien jabe izango gara, besteak beste, Gure Eskuk jarduteko behar dituen egiturak sostengatu eta plangintzako ekintzak bultzatuko ditugu. “Taldekako” bazkidetze planaren aukera berrikusiko dugu.



## 11. Finantzazioa

“Gure Esku herri dinamika libre bat da, bere burua autofinantzatuz, burujabetza ekonomikoari eusteko gai delako”

Zuzendaritza Kontseiluak bazkideei finantzazioari buruzko azalpenak eman beharko dizkie Bazkideon Batzar Nagusian. Iragan urteko kontabilitatea aurkeztu, eta onartu beharko da. Gure Esku herri dinamika libre bat da, bere burua autofinantzatuz, burujabetza ekonomikoari eusteko gai delako. Gaur egun, hiru multzotan sailka daitezke elkar-tearen diru-sarrerak: Gure Eskuko bazkideen kuotak, Tripontziaren irabaziak eta mobilizazioetako izen-emateei eta merchandising-ari loturiko diru-sarrerak.

Tripontzia da gaur gaurkoz Gure Eskuren diru-sarrera nagusia. Oso tresna eraginkorra da, eta beste eragile batzuekin elkarlanean salduz, are gehiago saltzeko potentzialtasuna dauka. Tripontziarekin batera, bazkide sarea zabaltzeko apustua egiten dugu. Gure Eskuren burujabetza ekonomiko eta politikoa bermatzeko bidea baita. Tripontziak Gure Eskuko tresna izatetik Euskal Herriko tresna eta eragile ezberdinen erdigunea izatera salto egin behar du. Profesionalizatzeko aukera ere aztertuko dugu. Bestalde, orain arte bezala, mobilizazio edo ekintza bakoitza autofinantzatzeko ahalegina egingo dugu.